

## GEUREA GEUK EGIN

1

Agindua zor dela, nonbait dut entzuna.  
Eta eman beharra, horri erantzuna.  
Jarri ez dezaidaten, kastiguz isuna.  
Hori bai litzateke, niretzat lizuna.  
Baina nolatan bete,? hau eginkizuna.!!!

2

Mundu honetan bada, galtze eta lorpen.  
Gerorako utziaz, hainbat itxaropen.  
Zerbait nahi duenari, ez nioke nahi ken.  
Laguntza eskatuta, nola soka eten.?  
Ez dizuet esango, erreguka nor zen.

3

Nitaz oroitutzea, ere ez da gutxi.  
Horrelako markarik, ez du inork hautsi.  
- Bertso batzuek behar, dituk erakutsi.  
Herritarra haizenez, ez aterik itxi.-  
Nire bertsotan ez da, horrenbeste pitxi.

4

Badakit nondik doan, lagunaren "pixta".  
Horrek ere nigandik, zerbait nahi konkista...  
Ni ere jabetu naiz, nahiz te izan pixka.  
Egunkariek berri, dakarte aldizka.  
Lezok ere duela, bere errebista.



5

Herri baten funtsa da, lana eta festa.  
Bera lagundutzeroa, ahal duena presta.  
Ezin hasi daiteke, bai-ari ezetz-ka.  
Zahar gazte guraso, mutil eta neska.  
Bakoitzak ager beza, daukanaren kezka.

6

Urrungo aholkuak, har beza tokia.  
Itzartu dadin berez, duguna lotia.  
Herria laguntzea, gauza egokia.  
Hau da denon eskutan, den filosofia.  
Ez besteren eltzetik, jan oilo "Zopia".

7

Ezin daiteke egun, lotan lasai etzan.  
Zintzilik janaririk, nork jartzen du pertzan?  
Bakoitzak bere oinez, egin behar dantzan.  
Txistua egon arren, herri enparantzan...  
Geurerik ezin utzi, auzo esperantzan.

8

Hamarreko txikian, horra zortzi bertso.  
Uso mezularia, agian da eltxo.  
Baliozkorik egin, ez badut ezertxo.  
Zuen mende nago har, nazazue preso.  
Edo beste bat arte, agurtzen da "Lexo".

Xanti ZABALA "LEXO"